

ELKARTE

39

Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea

**EZGAITASUNAK DITUZTEN
PERTSONAK HEZKUNTZAN
ETA LANEAN
TXERTATZEA**

IRISGARRITASUN LEGEA



Gozoratu...

ARABA

Beato Tomás de Zumárraga, 96-98 behea
Tel. eta Faxa: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealeku 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

GIPUZKOA

- **AGAEB**
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarte.
- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandako Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **ANAIIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonekiko kristau senidetasa.
- **ASPARGUI**
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **Debabarreneko Gutxitu Fisikoak.**
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarte.

BIZKAIA

- **A.C.C.U.**
Crohn-en eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte.
- **A.D.E.L.E.S.**
Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte.
- **ADEMBI**
Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte.
- **ALCER**
Giltxurreneko gaixotasunen aurkako elkarte.
- **ASEBI**
Asociación bizkaia elkarte espiná bífida e hidrocefalia.
- **Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko gurasoen bizkaiko elkarte.**
- **Lea-Artibaiko ahalurri fisikoen elkarte.**
- **AHEVA**
Eusko hemofiliaren elkarte.
- **ARGIA**
Ostomizatuen eta inkontinenteen euskal elkarte.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte.
- **AUXILIA**
- **A.V.A.H.**
Bizkaiko ataxia hereditarioen elkarte.
- **B.E.N.E.**
Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte.
- **BIDARI**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko ermuko elkarte.
- **BIZKEL**
Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak.

- **CODISFIBA**
Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko elkarte.
- **FRATER**
Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte.
- **L.E.V.A.R.**
Arthritis reumatoidea duten pertsonekiko elkarte.
- **EFELA**
Gutxitasun fisikoa duten pertsonekiko arratiko elkarte.

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonekiko Elkarte.

Eusko Jaurlaritzako
Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantzza Sailak
diruz, lagundutako
argitalpena.

Elkarte horiekin
harremanetan jarri nahi
baduzu, jo ezazu zure
probintziako
koordinadorara

a u r k i b i d e a

O r o k o r r a

1. EAEN NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDEKATASUNARI ARRETA EMATEKO LEGEAREN APLIKAZIOA	4
2. LANBIDE BERRIA	9
3. IRISGARRITASUN LEGEA	10
4. TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	11

A r a b a

1. EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK HEZKUNTZAN ETA LANEAN TXERTATzea	14
2. EGUNGO EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA	14
3. BERDINTASUNERAKO KONTSEILUA	15
4. IRISGARRITASUN FALTA MENDIZORROTZAN	16
5. ESKOLA-KANPAINA	17

B i z k a i a

1. ETXEGOKI LAGUNTZA DUTEN ETXEBIZITZAK: GIZARTE- ETA TEKNOLOGIA-BERRIKUNTZA, AHALMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONEK BIZITZA AUTONOMOA IZAN DEZATEN SUSTATZEKO	18
2. GUTTMANN INSTITUTUKO ARDURADUNAK FEKOOR IKUSTEN IZAN DIRA	20
3. BILBOKO UDALA ETA FEKOOR ELKARLANEAN ARI DIRA APARKATZE TXARTELEN IRUZURRA ETA ERABILERA OKERRA SAIHESTEKO	21
4. FEKOOR-EN INFORMATIKA IKASTAROA ETA SORMENEZKO LANTEGIAK	22
5. "URETARA" UR-KIROLEN JAIA BILBOKO ITSASADARREAN	24
6. FEKOOR AISIA. FEKOOR-EK ERDIALDEKO EUROPARA BIDAIA, ETA MURTZIARA ETA GIRONARA OPOR-ARNASALDIAK ANTOLATZEN DITU	25
7. ZAINDUZ PROGRAMA	26

EAEN NORBERAREN AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA MENDE TASUNARI ARRETA EMATEKO LEGEAREN APLIKAZIOA

Mendetasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeko legeak (AMAL), 2006an onartuak, mendetasun-egoeran dauden pertsonen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea aitortzen die. Horrek, gizarte-politiketan aurrerakada handia ekartzeaz gain, zerbitzuen eta prestazioen babeserako eta garapenerako aukera-sorta irekitzea ere badakar.

Lege horrek zaurgarritasun bereziko egoeran dauden pertsonen beharriak (eguneroko bizitzako funtsezko jarduerak egiteko laguntza behar dutenenak) artatzea eta laguntza horiek ematea dauka helburutzat, autonomia osoa lor dezaten eta herritar gisa beren eskubideak osoki erabil ditzaten.

Helburu hori lortzeko, Estatuaren babes-jarduera eta Gizarte Zerbitzuen Sistema hobetu beharra dago, bai mendetasunari arreta emateko bai mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko.

Errealitatean, aurrerakada hori garapen desberdina izaten ari da autonomia erkidego bakoitzean, eta ez dator bat egindako iragarki-zabalkundearekin, hark sortutako itxaropenak gaur egun betetzetik urrun baitaude.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere ezarpena desberdina izan da lurralde

bakoitzean, nahiz eta lege horretan aipatzen diren zerbitzu gehienak baziren gure erkidegoan. Baina horregatik ez dugu lasaitu behar. Izan ere, asko falta da oraindik lege hori bete eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak artatzea lortzeaz gain, horien guztien eta horietako bakoitzaren autonomiaren sustapena (legearen benetako esentzia) erdiesteko.

Alderdirik kezkarrietakoa erkidego batetik bestera legeak izan duen garapen desberdina da, eta are kezkarrietakoa erkidego baten barruan probintzia batetik bestera izandakoa, desberdintasun horiek pertsonen eskubideen kalterako baitira.

Arartekoak, bere azken txostenean, Mendetasunaren Legeak EAEn izandako ezarpenaren analisi konparatibo sakona aurkeztu zuen: legeak bere baitan hartzen dituen ikuspuntuak, esparru juridikoa, erabilera praktikoa, hiru Lurralde Historikoen arabera datuen analisia, eta abar.

Txosten zabal horretan argi eta garbi ikusten da Mendetasun Legearen irismena eta aplikazioa desberdina dela hiru lurraldeetan. Mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat eskubideen urraketa da hori, leku batean eta ez beste batean bizitze hutsagatik gertatua.

Adierazi dugun bezala, mendetasunaren eta autonomia pertsonalaren araudia ezartzeak egokitzapena dakar gizarte-zerbitzuen sisteman. Inplikaturik dauden erakundeek –hala nola udaletako gizarte-zerbitzuei, aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari– egokitzapen horrek zer ekarri dien adierazten da ikerketan.

Udaletako gizarte-zerbitzuei kolapso-egoera ekarri die, zenbait kasutan, batetik, herritarrek informatzeko eta aholkatzeko egindako lanaren ondorioz, eta bestetik, txostenak egiten eta espedienteak kudeatzen foru-erakundeekin izandako lankidetzaren ondorioz.

Aldundiek ahalegin handia egin behar izan dute sistema ezartzen eta giza baliabidez nahiz materialez hornitzen, beraiei baitagokie AMAL legearen araudi-garapena. Hau da, aldundiek kudeatzen dituzte beren lurraldean mendetasunaren balorazioarako beharrezko diren baliabideak eta zerbitzuak, legean jasotzen diren diru-laguntzak, nahiz norberaren autonomiaren eta mendetasunaren arreta sustatzeko zerbitzuak.

Eusko Jaurlaritzaren zeregina izan da informazioa osasun-sistematik gizarte-sistemara transferitzea, bai mendetasun-balorazioen prozesuetarako bai baliabide egokiak esleitzeko.

Horrez gainera, Eusko Jaurlaritzaren zeregina izan da Estatu Administrazio Orokorrari kupoaren bidezko finantzaketa-irizpideak ezartzeko beharrezko informazioa ematea eta informazio estatistiko zehatza ematea, aurrez aldundietatik bilduta.

Ikus daitekeenez, sistema ezartzea oso konplexua da. Eusko Jaurlaritzaren aldetik buruzagitza-falta nabaritu da ikerketan, bai eta presazko premia bat ere, berriz ere: gizarte- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazioa.

Ikerketako datu kualitatiboaren analisek hiru urte eta erdiko aldia hartzen dute, 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko uztailaren 1era artekoa. Analisi zabala egiteak izandako zailtasuna nabarmendu behar da, datuen bilketarako sistema bateratu integraturik ez baitago.



Arartekoak egindako ikerketaren ondorioetara loturik, alderdi hauek aipatu behar dira:

2010eko uztailaren 1a arte mendetasun-aitorpena lortu zuten pertsonen %63 emakumezkoa da. Horietatik asko dira 65 urtetik gorakoak, eta adin-tarte horren barruan 80 urtetik gorakoak nabarmentzen dira.

Aldiz, 65 urtetik beherakoen artean gizonezkoen kopurua handiagoa da; datu hori berdina da hiru lurraldeetan.

98.673 pertsonak eskatu zuten mendetasun-aitorpena, EAEko biztanleria osoaren %4,54k.

Egindako 93.395 balorazioetatik, %82,82k lortu du bere mendetasun-egoeraren aitortpena.

Bizkaia da aurkako irizpenen tasa handiena duen lurraldea.

Aitortutako mendetasun motari erreparatuz gero, esan behar da %43,74 mendetasun handitzat edo III. mailakotzat aitortu dela, %31,22 mendetasun larritzat edo II. mailakotzat,

eta %25,04 mendetasun moderatutzat edo I. mailakotzat.

Lurraldeka, Bizkaiak dauka I. mailako balorazioen indizerik handiena, Arabak II. mailakoetan indizerik handiena, eta Gipuzkoak III. mailako balorazioen indizerik handiena.

Mendetasun-egoeraren aitorpen-eskaeren espedientei buruz, eskaera-espedienteen kopuru handiagoa dago Gipuzkoan, egindako balorazioen berrikuste-portzentaje handiaren ondorioz.

Legea ezarri zen lehen bi urteetan kolapsoa gertatu zen Bizkaiko administrazioan, baina pixkanaka gaintuz joan da. Mendetasun-egoera aitortzeko eta BAP (Banakako Arreta Plana) gauzatzeko arin ibiltzeagatik nabarmentzen da Gipuzkoako administrazioa.

EAEEn 1.000 biztanletik 19,62 dira mendetasun-egoeran egonda zerbitzu eta prestazioen onuradunak diren pertsonak.

Lurraldeka, Gipuzkoak eta Arabak antzeko maila dute; Bizkaiak aldiz, askoz ere txikiagoa.

AMAL legean aurreikusitako prestazioen baten onuraduna da euskal biztanleriaren %1,59.

Hala ere, kezkgarria da prestaziorako eskubidea aitortua duten pertsonen %20 arreta jasotzeko zain egotea. Lurraldekako banaketa honako hau da: Gipuzkoan %15,52, Bizkaian %19,94, eta Araban %24,71.

EAEEn zerbitzuen eskaerari dagokionez, egoitza-arretarekiko eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuarekiko lehenetasuna nabarmentzen da. Gehien eskatutako prestazioa familia-eremuko zainketarako prestazio ekonomikoa da alde handiz (%41,90); bigarren, egoitza-arreta (%20,72), eta horren atzetik etxez etxeko laguntza-

zerbitzua (%11,88), eguneko zentroa (%11,15) eta telelaguntza.

Etxez etxeko laguntza-zerbitzua ezinbesteko baliabidea da mendetasun-egoeran dagoen pertsona bere etxean geratzeko. Zerbitzuaren orduak mendetasun-egoeran dagoenaren beharren eta sare formalean eta ez-formalean dituen laguntzen arabera zehaztu behar dira. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua oinarriko zerbitzua da. Hori kontuan hartu behar litzateke erabiltzaileari prezioa jartzerakoan, prezioak ez bailuke zerbitzua jasotzeko oztopo izan behar.

Telelaguntza-zerbitzuaren hazkunde handia nabari da; batez ere 80 urtetik gorako emakumeek eskatzen dute.



Bestalde, 65 urtetik beherako pertsonak ez dute zerbitzu horren onuradunen %6 gaintitzen.

Eguneko zentroetan baino leku gehiago daude egoitza-zentroetan, baina, hala ere, bietan daude itxarote-zerrendak.

AMAL legean aurreikusita dauden diru-laguntzen ezarpenean aldeak izan dira gure erkidegoan.

Zerbitzuari atxikitako prestazioa 2007an hasi zen ematen Araban, 2008an Gipuzkoan, eta 2010ean Bizkaian. 65 ur-

tetik gorako pertsoneri eman zitzaien kasuen %98tan.

AMAL legeak aurreikusitako prestazio-multzoaren eta zerbitzu-multzoaren barruan, familiaren eremuko zainketa-tarako diru-laguntzak dira estaldurata handiena dutenak. Arabak ditu tasarik handienak. Jasotzen dutenen %60-65 inguru emakumeak dira, baina 65 urtetik beherakoen artean gizonak dira gehiengoa.

Familia-eremuko prestazioen nagusitasun horren arrazoiak bat baino gehiago izan daitezke: ezkutaturik ze goen errealitate baten isla izatea, publizitate-kanpainen eraginkortasuna, edo administrazioarentzat kudeaketa errazekoa eta nahiko kostu baxukoa izatea, eta zerbitzu-sarea urria zelako zainketak ematen ari ziren familia batzuentzat pizgarri izatea, ez baitzuten horiek lortzeko aukerarik.

Batzuetan prestazio hori oztopoa izan da zerbitzuak aukeratzeko, batez ere zerbitzu horiek eta diru-laguntzak bateraezinak zirenean edo, nahiz eta bateragarriak izan, ordaindu beharreko prezio publikoaren ondorioz egindako murrizketek laguntza hori ia guztiz ahitzen zutenean.

Arreta pertsonalerako prestazioa Gipuzkoan eta Arabako kasu bakar batean soilik esleitu da. Gipuzkoan AMAL legearen 19. artikulua interpretazio zabalagoa egiten delako da hori, AMAL legeak jasotzen duen moduan norberaren autonomia sendotzean jartzen baita arreta, horrela eguneroko oinarriko jarduerak egitean bitzta autonomoagoa izatea errazteko.

Araudi berriak kolektiboetan zer inpaktu eduki duen ere aztertzen da ikerketan; horretarako, mendetasun-egoeran dauden pertsonengandik, haien zaintzaileengandik, elkarreetatik, gizarte erakundeetatik eta men-



detasun-egoeran dauden pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeetatik jaso da informazioa. Atal horretarako, ELKARTEANek eta Lurralde Federazioek beren ekarpenak egin zituzten bere garaian.

Legearen onarpena positiboa izan dela azpimarratzen da atal horretan, gehienbat prestazioak jasotzea eskubide subjektibotzat hartuta aitortzen eta arautzen delako.

Egia da, hala ere, benetako premien eta beharrezko baliabide ekonomikoen inguruan ez dela behar adinako plangintza izan, eta sistemari publikoki ezin eutsi izatearen kezka adierazten dutela.

Legea ezartzeko 8 urteko epea izatea oso luzetzat jotzen da; Gizarte Zerbitzuen legearekin bat, 5 urtekoa ego-kiagotzat jotzen da.

Era berean, gizarte zerbitzuen ereduari eta bideragarritasunari buruzko eztabaida proposatzen da, ikusirik nola hazi den gure biztanleriaren zahartze-tasa, eta ondorioz, mendetasunarena.

Hizkera dela eta, informazioa erraz ulertzeko moduan ematea eskatzen da.

Lurralde historikoetan legeak izan duen garapen desberdina salatzen da, egoera desberdinak sortu baitira, baita udalerrri batetik bestera ere. Koordinazio handiagoa eskatzen da erkidego mailan.

Hala eta guztiz ere, beste erkidego batzuen aldean, EAE egoera onean dago.

Prestazioen aldetik etorri da batez ere aurrerakada gure erkidegoan, gizarte-zerbitzuak bai baitzeuden lehendik ere.

Legeak laguntza-izaera handia duela nabarmentzen da, eta beraz ez duela autonomiaren sustapen-ekimenik eskaintzen, eta zahartze-aktiboa bultzatzen duten alderdiak ere ez direla kontuan hartzen.

Mendetasun-baremoak kritika asko jaso ditu. Beharrezkoa jotzen da baremoaren ezartze-irizpideak bateratzea, oso antzeko mendetasunetan gradu eta maila desberdineko ebazpenak izaten baitira kasu batzuetan.

Mendetasuna duen pertsonaren datuak familiak edo inguruak eman ditzakeenekin erkatzea da azpimarratzen den beste alderdi bat.

Familia-eremuko zainketetarako diru-laguntza garrantzitsua izan arren, horrekin batera etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta eguneko zentroa gehiago erabili beharko lirateke, pertsonak beren etxeetan eduki ahal izateko.

Gainera, prozedura errazteko, epeak laburtzeko eta berehalako esku-hartzea behar duten kasuak kontuan izateko eskatzen dute elkarteek.

60 urtetik beherako pertsonentzat beraien beharretara egokitutako zerbitzu gehiago ere eskatzen dira.

Laburpen modura:

- EAEn Araudia garatzean eta ezaritzean lurraldeen artean desorekak daudela ikusten da ikerketan.
- Mendetasun Legearen ezarpena desberdina izan da hiru lurraldeetan, zenbait arlori dagokionez; hala nola:

datu-bilketarako eta ustiapenerako irizpideei, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta foralen arteko koordinazioari, haien eta osasun-zerbitzuen artekoari, balorazio-taldeen osaerari, balorazio-ikuskapenen tipologiari, babes-intentsitateak zehazteari, zerbitzuen estaldura-mailari, eta sarren kalkulak egitean familia- edo bizikidetz-unitateari buruz egiten den definizioari dagokionez.

Herritarrek eskubide berak gozatu ezin izatea dakar horrek guztiak.

- Mendetasun-egoeraren aitorpenerako eta sistemako prestazioen esleipenerako prozedura oso prozesu luzea eta nahasia da, burokratizazio handiegia duena.
- Sistema berria ezartzeko ahaleginak ikusi arren hiru Aldundietan, mendetasunaren aitorpen-eskaera egiten denetik zerbitzuaren edo prestazioaren benetako esleipena egiten den arte pasatako denbora egokia litzatekeena baino luzeagoa da orokorrean. Beharrezkoa da itxaronaldi hori laburtzea, kasu askotan muturreko egoerak baitira.
- 65 urtetik gorako pertsonetan zenbait zailtasun hauteman dira laguntza teknikoak edo laguntza-produktuak jasotzeko.
- 60 urtetik beherako pertsonentzat egokituta dauden zerbitzu gehiago behar dira
- Zaintzaileek atsedean har dezaten jarritako programak, gailuak eta baliabideak ez dira nahikoa, eta batzuetan, pertsona nagusien kolektiboarentzat soilik izaten dira, mendetasuna duten pertsona guztientzat izan ordez.
- Ezinbestekoa da datu-sistema bateratua izatea, legearen ezarpenaren

garapena ezagutzeko eta beharriaren ikerketa egiteko.

- Norberaren Autonomiaren sustapena osorik garatu behar da.

Iturria: Arartekoak Eusko Legebiltzarrentzat eginiko txosten berezia: "EAEn norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko legearen aplikazioa".

LANBIDE BERRIA

Estatuko Gobernuaren Enplegu-argaloko eskumenak Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeak amaitu gabe zegoen gai bat ixtea ekarri du. Izan ere, Euskadi zen eskualdatze horiek ez zeuzkan ia-ia autonomia-erkidego bakarra.

Behin eskumen horiek eskualdatuta, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak hasiera eman dio berregituraketa-prozesu bati Lanbideren plangintza eta arauetan, eta bere gain hartu ditu, besteak beste, orain arte Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoarenak ziren funtzioak.

Aldaketa garrantzitsua da Lanbidera lekualdatzea Udal Zerbitzuen Irabazien Bermearen Errentaren izapidea eta kudeaketa. Irabazien Bermearen Errenta oinarrizko biziraupen-gastuak eta gizarteratze- edo laneratze-prozesuetan sortutako gastuak ordaintzeko diru-laguntza bat da. Izapide hori bere osotasunean urte bukaeran ezarriko dela aurreikusten da. Hori dela eta, Lanbideak kudeatuko ditu orain arte bezala langabezia-prestazioak, eta baita Irabazien Bermearen Errenta ere bere bulegoetan.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean Lanbideren bitartez egingo direla aurreikusten diren ekintzen artean daude: ahalmen-urritasuna duten pertsonak lan-merkatura errazago sartzeko plana, orain arteko ekintzak sendotuz; ahalmen-urritasuna duten pertsonen ohiko enplegua iraunkor bihurtzeko sustapena; kontratazio-laguntzak sendotzea babestutako en-

plegua enplegu iraunkor bihurtzeko; aniztasun-kudeaketarako unitatearen sorrera, ahalmen-urritasuna duten pertsonengan arreta jarriz eta zeharizaera hartuz Lanbideak garatutako alor eta programa guztientzat.



Ahalmen-urritasuna duten pertsonen trebakuntza eta lanbide-garapena ere sustatuko da horien lana bilatzeko aukerak hobetzeko, eta Ikuskaritzaren jarduera-irizpideak sendotzeko 50 langile baino gehiagoko enpresetan ahalmen-urritasuna duten langileen kuota %2a izan dadin.

Plan horrek ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatuko ditu enplegu-alorrean, irisgarritasun osoari buruzko eta laguntza-diseinu eta teknologiarri buruzko gaietan.

IRISGARRITASUN LEGEA

ELKARTEANek gogotsu lan egin zuen Irisgarritasunaren Sustapenerako 20/1997 Legearen garapenerako arau teknikoen aholkularitzan eta idazketan. Lege horrek bere helburuan adierazten du pertsona guztiak gizarte- eta komunitate-bizitzan sartzeara eta guztiek bertan parte hartzea sustatu beharra, eta bere onespenuk aurrerapen handia ekarri du herritar guztientzat aipaturiko alorretan.

Legearen testuan, halaber, nabarmentzen da herri-aginteez sortuta dauden eraikuntzen pixkanakako egokitzea bultzatuko dutela. Bestalde, lanen urbanizatzeara eta egite-proiektu guztietan behar bezala bermatuko dute irisgarritasuna, bai egoitza-multzoko elementuetan eta bai hiri-hornigarrietan ere.

Irisgarritasun Legea pertsonak gizarte- eta elkarte-bizitzan parte-hartze osoa izateko eskubidea dutela onartzetik sortu zen; horretarako, pertsonak normaltasunez moldatzeko arkitektura- eta komunikazio-oztopo guztiak desagertzeko eta edozein hirigune eta herri-eremutan irisgarritasun osoa lortzeko moduak arautuz.

Hamalau urte pasatu dira lege hori onartu zenetik, eta ELKARTEANetik hura osorik bete dadila aldarrikatzen jarraitzen dugu, erabateko irisgarritasun unibertsala lortzeko.

Hala ere, gaur egun lege hori betetzen ez duten salaketak eta kexak jaso eta aztertzen jarraitzen dugu eta, ondorioz, herritar guztiek, oro har, eta ahalmen-urritasuna dutenek, bereziki, ez dute izaten aukera osorik edozein esparru, gizarte-, komunitate- edo herri-eremutan sartzeko. Eta ELKARTEANetik egiaztatzen dugu oraindik ezin konta ahala oztopo daudela egunetik egunerako bizitzan osotasunez

moldatzeko. Izan ere, paperean ongi zehaztuta egonagatik, praktikan oso zaila da erabateko irisgarritasun unibertsal hori lortzea.

Agian beharrezkoa da legea berritzea, ez baitu zorrozki jasotzen irisgarritasun hori errazten duten alderdietako bakoitza, dagoen legea zabala eta zehatza dela uste badugu ere.

Beharbada beharrezkoa da lege hori betetzeko protokoloak antolatzea guztion onerako.

Beharbada guztion artean lan egin behar dugu, legea betetzearekin lotura handiena duten eragileek kontzientzia har dezaten.

Kontua da lan handia dagoela egiteko erabateko irisgarritasun unibertsala lortzeko.

Hori dela eta, guztion egitekoa delako eta gai honetan esateko eta eskaintzeko asko duzuela uste dugulako, ELKARTEANetik gonbidatzen zaituztegu edozein ohar, kexa, salaketa edo, finean, irisgarritasunari buruz daukaguzen edo helarazi nahi diguzuen edozein galdera egitera; pozik aztertuko dugu, hori baita gure egitekoa.

Bidali zuen idatziak honako e-posta honetara:

elkarteanconfederacion@gmail.com

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEN ZERGA

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga toki-izaerako eta urtebeteko periodikotasuna duen zerga bat da ibilgailu guztientzat. Aldundiena da zerga hori foru-arauen bidez urtero arautzeko eskumena. Euskal Autonomia Erkidegoan 1989az geroztik eta hiru lurraldeetan, ibilgailu batzuk zerga horretatik kanpo geratzeko aukera kontuan hartzen da. Horien artean daude ondokoak:

Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorren II. eranskinaren A hizkian adierazitako mugikortasun mugatua duten pertsonentzako ibilgailuak.

Era berean, salbuetsita daude ahalmen-urritasuna duten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuak, beren erabilera eskusiborako. Salbuespen hori aplikatuko zaie egoera jakin horiek mantentzen diren heinean, bai ahalmen-urritasuna duten pertsonen gidatutako ibilgailuei eta bai horien garraiora xedatutako ei ere.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako salbuespenak ezin zaizkie aplikatu aldi berean ibilgailu bat baino gehiagoren onuradun diren subjektu pasiboiei.

Hizki horretan xedatutakoaren arabera, ahalmen-urritasuna duten pertsonatza hartzen dira lege-baldintza hori dutenak %33ko edo gehiagoko mailan.

Hau da, ibilgailu baten jabe ziren eta %33ko edo gehiagoko ahalmen-urritasun maila zuten pertsona guztiak zeuden zerga hori ordaintzetik libre.

2009ko urte amaieran, 2010. urterako Foru Arauek EAEko hiru lurraldeetako bakoitzean aldatu egin zuten funtsean legearen atal-multzo hori eta, ondorioz, aipaturiko zergaren salbuespenean murrizketa zorrotz bat egin zen.



ELKARTEANek, eskumena zuten erakundeekin zenbait elkarrizketa izateaz gainera, ELKARTEAN osatzen duten lurralde-federazioen bitartez hainbat eskaera egin zituen lurralde-mailan.

Aurtengorako Foru Arauak hiru lurraldeetan argitaratu dira, eta zerga hori aldaketa gutxirekin arautu dute ahalmen-urritasuna duten pertsonen alde; honela geratu da:

“Bidezkoa da, beraz, salbuespen horren aplikazioari dagokion mugen aldaketa onartzea, proposatutako baldintzetan.

Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikuluko 1. ataleko e) letra aldatu da eta horrela idatzita geratu da:

- e) *Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onartutako Ibilgailuen Araudi Orokorren II. eranskinaren A hizkian adierazitako mugikortasun mugatua duten pertsonentzako ibilgailuak ahalmen-urritasuna duten pertsonen izenean matrikulatuak badaude.*

Era berean, salbuetsita daude ahalmen-urritasuna duten pertsonen izenean matrikulatutako 14 zaldi fiskal baino gutxiagoko ibilgailuak, erabilera eskusiborako. Salbuespen hori aplikatuko zaie egoera jakin hori mantentzen den heinean, bai ahalmen-urritasuna duten pertsonen gidatutako ibilgailuei eta bai horien garraioren xedatutakoei ere.

(...) ahalmen-urritasuna duten pertsonentzat hartuko dira honako hauek:

- a), *"%33ko edo gehiagoko eta %65 baino gutxiagoko ahalmen-urritasun maila aitortuta duten eta mugikortasun mugatuko gabezia egoeran dauden haiek, horiek izanik 1971/1999 Errege Dekretuan azaltzen den baremoan A, B edo C hizkietan deskribatutako egoeraren batean dauden pertsonak, edo 7 puntu edo gehiago lortu dituztenak aipaturiko baremoko D,E,F,G edo H hizkietan.*
- b) *%65eko edo gehiagoko ahalmen-urritasun maila duten pertsonak.*

Aurreko a) eta b) hizkietan sartzen diren pertsonen, aipatutako 1971/1999 Errege Dekretuko 3. eranskinen azaltzen den baremoaren A hizkian aipatutako mugikortasun mugatuko gabezia-egoeran badaude, ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskalera aulkari gorpilduna ibiltzeko egokitua izan bada."

Zergatik salbuetsita egongo dira, halaber, guraso-aginte, zaindarritza edo kuradoretza izaeratik beren gain %65 edo gehiagoko ahalmen-urritasun maila duen pertso-

naren bat dutenak. Ibilgailu bat baino gehiagoren jabe direnentzat, salbuespena batean bakarrik aplikatuko da, baldin eta udalean ahalmen-urritasun maila eta ahalmen-urritasuna duen pertsonarekin dagoen erlazioa egiaztatzen bada.



Foru-arauen aldaketa-mantentze hori atzerapauso bat da ordezkatzeko ditugun pertsonen eskuratutako eskubideetan, salbuespenaren onura mugatzen baitu.

Beren ibilgailuak 14 zaldi fiskalak gainditzen ez dituzten pertsonen kasuan, muga hori ez dator bat mugikortasun mugatua dutenen taldearekin. Izan ere, gure lekualdatzeetarako askotan neurri hori gainditzen duten ibilgailuak behar ditugu, horietan egin behar diren eta salbuespen horretan jasotzen ez diren egokitza-penak direla eta, hala nola abiadura-kaxa automatikoarena.

Nabarmendu nahi dugu, gaur egun, oraindik, gorputz ahalmen-urritasun fisikoa edo organikoa dugun pertsonok gizarte-desabantailazko egoera batetik abiatzen garela gure eguneroko bizitzako alor guztietako bakoitzean (hezkuntza, trebakuntza, osasuna, enplegua, aisia, eta abar).

Gainera, bizitza-maila duin eta egoki bat lortzeko ekonomia-kostu handiagoa behar dugu. Ahalmen-urritasuna duen kideren bat duten familien ekonomia-ahalegina urteko 33.496 euro-takoa izatera irits daiteke. (1)

1("Adimenaren ahalmen-urritasunak sortzen duen ekonomia-ahalegin handiaren ikerketa Espainian" FEAPS, Adimenaren ahalmen-urritasuna duten Pertsonen aldeko Elkartearen Espainiako Federazioa, Euskadin).

Langabezia-tasak handiagoak dira ahalmen-urritasuna duten pertsonengan biztanleriaren gainerakoan baino.

Bi arrazoi horiek eraginda, ordaintzeko ekonomia-ahalmen eskasago bat sortzen da. Azken hori arindu egin behar litzateke ekintza positibodun neurriak arautuz, ahal den neurrian zaugarritasun-egoerarik sortu ez dadin eta horrela "desabantaila" hori berdintzeko.

Hori dela eta, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena bezalako lege-tresnak kentzeak ez du desabantaila hori berdintzen. Era berean, ahalmen-urritasun fisiko edo organikoa (edozein mailatan) dugun pertsonok gizartean dugun parte-hartze osoa mugatzen du, motordun ibilgailuak norberaren autonomia

bultzatzeko beharrezko laguntza tekniko izaera baitute guztiontzat; eta eskubide hori unibertsaltiki onartua dago.

Desabantaila hori, halaber, larriagotu egiten da Estatuko gainerako ahalmen-urritasuna duten pertsonekin alderatzen badugu. Izan ere, haiek ekintza positibodun neurri horrekin gozatzen jarraitzen dute eta, ondorioz, Estatuko biztanleriaren aldean gizarte-desabantaila handiagoa daukagu, konstituzio-printzipioetan araututako ahalmen-urritasuna duten pertsonen berdintasun- eta gizarte-ratze-printzipioa larriki hausten baita.

Ondorioz, uste dugu ez litzatekeela egoera desberdinik izan behar, itxuraz arrazoirik gabe, batez ere eragina badute, biztanleriaren gehiengoarekin berdintasun-egoeran egoteko, egunero traba jakin batzuk gainditu behar ditugun pertsonengan.



EZGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK HEZKUNTZAN ETA LANEAN TXERTATZEA

Joan den uztaillean, Eginaren Eginetako ordezkariak UNEDek A Coruñaan antolatutako udako ikastarora joan ziren, ezgaitasunak dituzten pertsonak hezkuntzan eta lanean txertatzeari buruzkoa. Jakingarri moduan, ekitaldia egin zen Zentro Elkartua "iristeko moduan" ipini zen, oholntza ez baitzen legezkoa, ez zielako iristeko biderik ematen aniztasun funtzionala zuten hizlariei.

Hizlarien artean hainbat nazio-erakundetako ordezkariak zeuden –hala nola Once eta Cermi-koak–, UNEDekoak eta inklusioan adituak, Gerardo Echeíta bezalakoak. Hark argi utzi zuen zerk eragozten duen benetako inklusioa: gizartea eta gizakiak sortutako ingurunea ez moldatu izana ezgaitasunak dituzten pertsonen

premia eta nahietara, eta ez pertsona horiek gizartera moldatu ezina.

Udako ikastaroak iraun zuen hiru egunetan zehar, informazioa eman zen UNEDek eta lehen aipatutako erakundeek egindako ekimenei buruz. Oro har, benetan integratzailea den ikuspegi baten falta ikusi dugu. Eskubide-berdintasuna bermatzeko tresnen berri eman zen, adibidez Nazio Batuen Konbentzioa eta estatuen hainbat irisgarritasun-lege, eta horiek aplikatzea, zalantzarik gabe, funtsezkoa izango litzateke benetako berdintasuna egon dadin.

EGUNGO EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA

Azkeneko udal- eta foru-hauteskuntzek aldaketa berriak ekarri dituzte tokiko gobernuetan.

Irailetik hona, kargua utzi dutenen agurrak jaso ditugu, bai eta, pixkanaka bada ere, Udaleko eta Aldundiko Sailetako Zuzendaritzak betez doazen izendapenak ere.

Krisialdiak denoi erasan digu. Sektore batzuei besteei baino gehiago: Ara-

ban egunero ari dira enpresak ixten, diputatu nagusiak etengabe ohartarazten du *"Arabak ez dela nahikoa diru biltzen"*, Maroto alkate jaunak behin eta berriro gogorarazten digu murrizketak datozela, etab.

1979tik hona, Elkarreak momentu asko ezagutu ditu, batzuk hobeak eta besteak okerragoak, baina beti hirugarren sektorearen ikuspegitik, eskubideak aldarrikatuz, egitura be-

rezirik sortu nahi izan gabe baina beti hor, barreraren beste aldean, gure probintzian agintzen duten politikariren aurrean, herriak eta hiriak eratzeko orduan herritarren aniztasuna berma dadin, eta pertsona guztiguztiek aukera berdinak izan ditza- ten, edozein izanik ere beren adina, sexua, egoera fisikoa, sexu-aukera, etnia, etab.

Horretarako, aniztasun funtzionala dugunok modu autonomoan eta in- dependentean iritsi behar dugu gure erkidegoko baliabide guztietara, eta gobernu berriekin batera lan egin nahi genuke pertsona guztientzat be- harrezkoa den ildo aurrerakoi, inklusi- bo eta ezin hobe horretan.

BERDINTASUNERAKO KONTSEILUA

Ekainaren 18an, ZIGOITiko kultur etxean izan ginen, Arabako Foru Al- dundiko Gizarte Sustapenerako Sailak gonbidatuta. Helburua zen Arabako emakumeen genero-berdintasunaren alorrean aurrera egiten jarraitzea, *“Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Kontseilua eragin- eta ahalduz tresna moduan bul- tzatzeko estrategiak”* jardunaldiaren barruan.



Arabako Foru Aldundiko Gizarte Sus- tapenerako Saila utzi behar zuen zuzendari Elo Mayok aurkeztu zuen jardunaldiaren programa; goizean ze- har egin ziren lantegien eta saioaren hasiera izan zen.

Rocío Rodríguez Prieto soziologoak ere parte hartu zuen, eta Espainiako kontseiluei buruzko zenbait gogoeta eta mugimendu feministaren gai jakin batzuk aurkeztu zituen. Horrez gain,

hurbilketa bat egin zen elkarre-sarea- ren diagnostikora, eta gero kontzeptu horiek guztiak lantegietan landu ziren.

Zenbait alorretako emakumeak zeu- den: nekazaritzakoak, sexu-anizta- sunekoak, gutxiengo etnikoetakoak eta gu, aniztasun funtzionalekoak. Guztion artean, ahalduz zearekin lo- tutako kontzeptuak eta generoarekin lotutako beste kontzeptu batzuk ezta- baidatu genituen. **Eginaren Eginez** elkartetik, aniztasuna duten emaku- meak kalteberagoak direla eta bi dis- kriminazio bizi dituztela ikusarazten saiatzen gara beti.

Urriaren 15ean Word Café bat egiteko hitzordua egin genuen, baina azke- neko hauteskundeen ondorioz egon- dako aldaketa politikoak gelditu egin du oraingoz prozesua.



Arabako

IRISGARRITASUN FALTA MENDIZORROTZAN

Eginaren Eginenez elkarteko ordezkariak MENDIZORROTZako igerileku estali berrietan egon dira, eta ikusi ahal izan dute zenbait hutsune daudela irisgarritasunaren aldetik. Aniztasuna duten pertsonen aukera-berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzko Legeak gaur egun ezartzen duen babes-esparrua kontuan hartzen badugu, hutsune horiek eskubideen beste urraketa bat dira. Hona hemen aurkitutako hutsuneak.

Igerilekuaren eremua

Aniztasuna duen pertsona soroslearen mende geratzen da Bluone aulki berria (igerilekuko transferentzia-aulkia) erabiltzeko, eta, beraz, uretara sartzeko eta uretatik irteteko.



Aulki-modelo hori erabiltzea atzerapauso bat da, udal-ekipamenduko beste igerileku batzuetan orain arte instalatu direnekin alderatzen badugu; izan ere, aniztasuna duen pertsonak bere kasa erabil ditzake beste aulkiak, baina ez Mendizorrotzako igerileku estalikoa.

2011. urtean gaude, eta aniztasuna duten pertsonen eskubideen aldeko konbentzio bat dugu European, Espainiak berretsia. Horregatik, salatzen

modukoa da aniztasuna duten pertsonen bizitza autonomoa izatea bermatzen ez duten elementuak jartzea gure hirian; berdin dio kirol-aisialdirako diren edo lehiaketetarako, aniztasuna dugun pertsonok bi gauzak egiten baititugu.

Bainuak

Bainuaren diseinuak ez ditu diseinu unibertsalaren irizpideak betetzen; hau da, zenbait arrisku daude pertsonen komun-ontziak erabiltzeko, eta horrek mendetasun-egoeran uzten ditu. Izan ere, pertsona batek ez badu muskulu-tonurik edo aniztasunaren barruan ohikoa den beste edozein lesio-mota baldin badu, komun barrura eroriko da; horrek ezintasun-sentsazioa sortuko dio eta laguntza eskatu behar izango du.



Gainera, abisatzeko txirrina oso behan dago, eta bainuko beste elementu batzuek ezkutuan uzten dute; argazki honetan, adibidez, edukiontziaeren atzean dagoela ikus daiteke.

Aldagelak

Batzuek ez dute barrarik. Beste batzuek badituzte barrak, baina gutxi, eta ez behar diren tokietan.



Dutxa-aulkia mugikorra da, eta hori arriskutsua da.

Dutxa-burua finkoa da eta oso goian dago. Gainera, ez dago gortinarik edo beste babes-elementurik, gurpil-aulkia oso-osorik busti ez dadin.

ESKOLA KANPAINA

Urriaren bigarren hamabostaldian, AUZOKIDEAK txotxongilo-ikusbizuna egon da ikusgai lbaiondo gizarte-etxeko antzokian.

Ordubetez, sei pertsonaia, Aitzol, Ekieder, Hugo, Amaia, Ekaitz eta Lisette, gure inguruneke haurrak izan dira, aniztasuna dutenak nahiz ez dutenak; haur horiek kezkatu daude eragiten dieten gaiez, besteak beste, hauetaz: ekologia, ingurunearen defentsa, beste sexuarekin dituzten harremanak, gurasoekin dituzten harremanak, aniztasuna...

Udaleko Hezkuntza Sailak bi urtean zehar emandako diru-laguntzekin eta Udaleko Gizartegintza Sailak 2010ean emandakoarekin, Elkartek AUZOKIDEAK sortu du; Panta Rhei antzerki-taldearen laguntza izan du gidioa eta txotxongioloak egiteko.

Ez dago bankurik, eserlekurik, esekigailurik edo arropa uzteko lekurik aldagela osoan. Abisatzeko txirrinak, aurreko atalean adierazi dugun moduan, oso behean daude, eta erdi ezkutaturik.

Hori guztia dela eta, Eduardo Enguita Kirol zuzendari berriarengana, oraindik eratu gabe dagoen Irisgarritasunerako Udal Kontseiluko presidente Leticia Comeronengana, alkatearengana eta alderdi politikoengana jo dugu, honako hau eskatzeko: neurriak har ditzatela, irisgarritasuna bermatzeko eta aniztasuna duten pertsonen bizitza autonomo eta independentea bermatzeko, eta, horretarako, diseinu unibertsaleko elementuak jar ditzatela, pertsona guztiek erabili ahal izan ditzaten, haien ezaugarriak edozein direla ere.



Azkenik, entsegu asko egin ondoren, ikuskizuna egin da, eta Gasteizko zazpi ikastetxetako Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleak joan dira. Elkartek gida didaktiko bat diseinatu du, emanaldia ikusi ondoren, irakasleek hurrekin landu eta sakondu dezaten aniztasunaren gaia.

Auzokideak

ETXEGOKI LAGUNTZA DUTEN ETXEBIZITZAK:

**GIZARTE- ETA TEKNOLOGIA- BERRIKUNTZA,
AHALMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONEK
BIZITZA AUTONOMOA IZAN DEZATEN
SUSTATZEKO**

Bizkaiko Foru Aldundiak laguntzadun hogeita hamabi etxebizitza abiarazi ditu Txurdinagan (Bilbon). Etxebizitza horiek FEKOORek kudeatzen ditu, gorputzeko ahalmen-urritasuna duten pertsoneri etxebizitza-aukera egoki, neurrira egin-dako eta guztiz berritzaile bat eskaintzeko Bizkaian. Horren guztiaren helburua da ahalmen-urritasundunei autonomia, gizartean parte-hartzea eta bizi-kalitatea erraztea.

Etxegoki jada etekin osoa ematen ari da. Bizkaiko Foru Aldundiak abiarazi dituen laguntzadun lehenengo hogeita hamabi etxebizitzak barne hartzen dituen eraikuntzak, Txurdinaga Bilboko auzoan, ez du inoren arreta erakarri gabe utzi. Eraikuntzaren toki ia guztiak beteta daude eta nabari da jendea pozik dagoela proiektuarekin, lehenengo aldiz Bizkaian autonomia-espereintzia bat bizitzeko aukera ematen baitu. Izan ere, gizarte-zerbitzuen sorreran izandako berrikuntza eta abangoardiako teknologiarri esker, autonomia pertsonal handiagoa eta bizi-kalitate hobea lortuko dituzte.

Etxebizitza-guneak hogeita hamar toki iraunkor eta denboraldi batarako lau toki ditu. Egitasmoa Aldundiarekin batera urte batzuk lan egin ondoren sortu zen, aniztasun funtzionala duten pertsonen non eta nola bizi erabaki ahal izan dezaten, autokudeaketa eta burujabetasuna sustatuz eta gizarte-ingurunean sartzea erraztuz. Eredu horrek, azken finean, aldaketa garrantzitsua dakar egungo bizitegi-ereduan.

Eraikuntzak 2.778 m² dauzka sei solairutan banatuta. Beheko solairuan



harrera-lekua, zuzendaritza- eta kudeaketa-bulegoak, gune komunak (egongela eta ekintza-aretoa, jangela, egokitutako bainugelak eta biltegiak). Eraikuntzako maila guztiak komunikatzen dituen igogailu baten bidez etxebizitzaren lau solairuetara hel gaitzeko, eta baita beheko solairura ere. Azken horretan daude garbitegia, batzar-gela, talde profesionalaren bilkura-gela, aldagelak eta biltegi-guneak.

Profilak eta sarbide-eskaerak

Baliabide berri hori erabiltzeko bete beharreko baldintzak hauek dira:

18 eta 60 urte bitarte izatea, %33ko edo gehiagoko ahalmen-urritasuna edukitzea, eta 1 edo gehiagoko ATP (hirugarren pertsonari zuzendutako laguntza zehazteko baremoa) izatea, abenduaren 23ko 1971/1998 Errege Dekretuaren arabera; edota beren menpekotasun-egoera onartuta daukatena autonomia pertsonalaren sustapenari eta menpekotasuna duten pertsonen ardurari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera.

Sarbide-eskaerak Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte-ekintza Sailaren bidez bideratzen dira, Bilbon, Lersundi kaleko 14. zenbakian. Eskaera-inprimakiak eta sarbidea bideratzeko eskatzen diren dokumentuei buruzko informazioa Aldundiko web-etik jaits daiteke:

www.bizkaia.net

Gizarte- eta teknologia-berrikuntza

Pertsona bakoitzak behar dituen laguntzak gizarte- eta osasun-langile espezializatuz osaturiko talde batek eskaintzen ditu, **Banakako Arreta Planaren** arabera. Plan horren da helburua nork bere burua zaintzea eta mugikortasuna lortzea, pertsonen autonomia eta independentzia sustatu eta bizilekuan modu burujabea bizitzeko.

Laguntza-zerbitzuen artean dago erabiltzailearen ongizatea bermatzeko beharrezkoa den **oinarrizko zainketa pertsonalen estaldura**. Laguntza horiek guztiek etxebizitzan nork bere

buruaren zaintza, mugikortasuna eta autonomia sustatzea lortu nahi dute (garbitasuna, higiena eta txukuntasun pertsonala, laguntza elikaduran, medikazioa eta osasun-laguntza ez-espezializatuak, laguntza mugikortasun eta transferentzietan, etab.). Hori guztia, norbere zereginak eta etxebizitzarenak onartzeko erantzukizunarekin, komunitate-bizitzan parte hartze aktiboa lortzeko.

Eraikuntzak baditu beste zerbitzu orokor batzuk ere, hala nola: etxebizitzaren eta gune komunen garbiketa, garbitegia eta jangela-zerbitzua.

Extebitezke beharrezko guztia daukate eta aniztasun funtzionala duten pertsonen beharretara egokituta daude. Extebizitza bakoitzak gela nagusi bat eta bainugela egokitu bat dauka. Tokiak polipasto edo sabai-garabi baten bidez komunikatzen dira. Azken horiek modu autonomoan erabil daitezke, transferentzia eta eguneroko garbiketa errazteko. Gainera, egongela eta sukalde egokitua ere badute, altueraz alda daitekeen sukalde-gaineko, mikrouhin-labe eta hozkailu batekin.

Eraikuntzak abangoardiako teknologia eta autonomia pertsonala sustatzeko azken aurrerapenak dauka. Bertan bizi den pertsona bakoitza, behar izanez gero, eraikuntza-ingurunearen kontrol-sistemara sar daiteke urrutiko aginte unibertsal baten bidez. Urrutiko aginte horren bidez etxebizitzako gailu guztiak erabiltzen dituzte: polipasto edo sabai-garabiak, ohe artikulatuaren kontrola, telefono-deiak eta atezain automatikoa, laguntza-deiak, telebista, argiteria, pertsianak, atezkitze automatizatua, igogailuaren kontrola...

Abangoardiako teknologia hori Euskadin garatua da eta, oso moldagarria izateaz gainera, gaitasun guztietara egokitzen da. Era berean, mendekotasun-maila handia duten pertsonak erabil dezakete gailuak putz eginez, edo irisaren bidez ere erabil daitezke.



GUTTMANN INSTITUTUKO ARDURADUNAK FEKOOR IKUSTEN IZAN DIRA

Guttman Institutuko Gizarte eta Osasun Programetako arduraduna den Angel Gil Origuen Fekoor ikusten izan zen uztailen Xabier Garcia-Mila arkitektoarekin batera, Bizkaiko Foru Aldundiak Txurdinagan abian jarri dituen 32 "Etxegoki" apartamentuak ezagutzeko asmoz. Bizitoki horiek ahalmen-urritasun fisikoa duten pertsonentzat laguntza dute eta Federazioak kudeatzen ditu ireki zirenetik.

Guttman Institutua ereduak erakunde da nazioartean, bizkarrezur-muineko lesioa, hartutako kalte zerebrala eta jatorri neurologikoa duten beste hainbat ahalmen-urritasun handi dituzten pertsonen tratamendu mediku-kirurgikoa eta errehabilitazio integralari dagokionean. Ahalmen-urritasuna duten pertsonen eskubiak eta aukera-berdintasunaren sustapenean eta babesean konprometitua dagoen erakunde da. Batez ere, prebentzioaren, dibulgazioaren eta gizarte-sentsibilizazioaren arloan egiten ditu bere jarduerak.

Guttman Institutuko Gizarte eta Osasun Programetako arduradunak, Iñigo Pombok, Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari orokorrarekin, Juan Carlos Solarekin, Fekoor-eko zuzendariarekin, eta Luis Melus eta Carla Santamaria Etxegokiko arduradunekin izandako bileran azpimarratu zuen eginkizun eta jokaera-filosofia aldetik *"Fekoor-en proiektuarekin antzekotasun handiak dituela, batez ere pertsonetara zuzendutako (eta bere zerbitzu-sare osoan barneratutako) kalitatezko politikan islatzen den gizarte-eraldaketara bideratutako plan-teamendu estrategikoa"*.

Guttman Institutuko arduradunak nahiz erakunde garrantzitsu horrekin lan egiten duen arkitektoak esan zuten "txundituta zeudela Etxegoki ikusi

eta gero". Ahalmen-urritasun fisikoa duten pertsonentzako etxebizitzetako dagokionean, aukerarik ez izateak suposatzen duen arazoa azpimarratu zuen Angel Gilek ere, eta "kolektibo horretara zuzendutako gizarte-zerbitzuen ikusmoldeari berrikuntza ematen dion eta pertsonen autonomia sustatzeko gakoetako bat ingurunea kontrolatzeko teknologia duen horrelako proiektu aitzindari batek" gehitzen duen balioa nabarmendu zuen. Bi profesional horien esanetan, lehenago edo beranduago heldu beharko zaio arazo horri etxebizitzaren politika publikoaren arloan.

Arkitekto kataluniarrak Txurdinagan abian jarritako teknologia aipatu zuen behin eta berriz, eta batez ere "apartamentuko elementu guztien diseinuan hain integratua dago irisgarritasuna, ikusi hutsean ez baita nabarmentzen; hori, diseinu unibertsalaren ikuspegitik, proiektu berritzaile horren atzean dagoen kontzeptu horren inguruko hausnarketa sakonaren erakusgarri argia da".

Guttman Institutuak "Meridiana" proiektua abian jartzeko asmoa du Bartzelonako La Sagrera auzoaren bihotzean. Ahalmen-urritasun fisikoa duten pertsonentzat bizitza autonomoa duten 150 egoitza-unitateko multzoa eraikitzeko asmoa dute hasiera batean.



Proiektu horren arduradunen esanetan "ziur asko Txurdinagara egindako ikustaldiaren ostean berraztertu beharko dugu proiektua, hartzaileen profilerak eta benetako beharretara egokitzeko".

Ereduak eta proiektuak alderatzeko, eta elkarkidetzaren eremuak aztertzeko balio izan zuen ikustaldia.

BILBOKO UDALA ETA FEKOOR ELKARLANEAN ARI DIRA APARKATZE TXARTELEN IRUZURRA ETA ERABILERA OKERRA SAIHESTEKO

Iruzurra saihestu eta erabiltzaileak babestu. Hori da ahalmen-urritasuna duten pertsonentzat Bilboko Udalak FEKOORekin elkarlanean aurkeztu duen aparkatze-txartel berrien helburu nagusia. Udalak areagotu egingo du zaintza eta faltsutzearen eta erabilera okerraren gaineko kontrola. Aldi berean, jokabide horiek izan ditzaketan ondorio penalei buruz ohartaraziko du.

Txartel berriak urtarrilean editatu zituen Eusko Jaurlaritzak, hainbat udalen eskaria aintzat hartuz. Horien artean, Bilbokoak gogor lan egin du FEKOORekin elkarlanean ahalmen-urritasuna duten pertsonentzat aparkatze-txartelaren eredu berria eskatuz; Estatuko eta Europako legedia jarraituko zituena, eta faltsutzea eta erreproduzitzea zailduko zuten ezaugarriak zituena.

Eredu hori jarraituz, ahalmen-urritasunaren bereizgarria duen holograma bat daukan aparkatze-txartela ateratzeko lan egin du hilabete guztietan Udaleko Zirkulazio eta Garraio Sailak. Horrela ezinezkoa izango da txartelak eskaneatzea edo erreproduzitzea, faltsutzea agerian utzi gabe.

Gaur egun, Udalak 1.841 txartel jaulki ditu. Fekoor aspaldidanik etengabe salatzen ari da aparkatze-txartelen eta aparkaleku erreserbatuen faltsutzea eta erabilera okerra. Administrazioak lehenbailehen konpondu behar



du arazo hori ahalmen-urritasuna duten pertsonen mugikortasuna eta barne-hartzea laguntzeko; izan ere, autoz mugitzea ezinbestekoa zaigu gainerako hiritarren aukera berberekin gizartean parte hartzeko (lanera, ikastera, kirola egitera, aisialdiaz gozatzera... joateko).

Txartel-eredu berriak faltsutzea eta kopia saihestuko ditu, eta, beraz, zirkulaziotik kenduko ditu legez kanpoko txartel asko. Baina txartel asko ahalmen-urritasuna duten senideentzat eskatzen dira (guraso helduak, ahalmen-urritasuna duten seme-alabak, adibidez), eta ondoren familia osoak erabiltzen ditu aparkaleku erreserbatuetan aparkatzeko, titularraren etxe berean ere bizi ez diren arren. Txartelaren jabea hil ondoren ere erabiltzen jarraitzen dira. Uneko mugikortasun-arazoengatik denbora baterako

txartelak ere ematen dira, baina ez dira itzultzen jadanik txartela behar ez denean. Txartelen faltsutzeak eta erabilera okerrak dakartzaten lege-ondorioez ohartarazi du Udalak. Faltsutze-delituari eta dokumentu publikoen erabilerari buruzko Zigor Kodearen 392. eta 393. artikuluetan jasotzen den moduan, sei hilabetetik hiru urte arteko kartzela-zigorak eta seitik hamabi hilabetera arteko isunak dakartza berekin.

Era berean, Kode Zibileko Atariko Tituluaren 7. artikuluan "Eskubideak onustearen eskakizunekin bat etorritik egikaritu beharko dira" esaten da, eta 2. atalean: "Legeak ez du babesten eskubideaz abusatzea, ezta eskubi-

dea gizartearen aurka egikaritzea ere. Egite edo ez-egite orok, egilearen asmoarengatik, egite edo ez-egitearen helburuarengatik edo berori burutzeko inguruabarrengatik, begibistan gainditzen baditu eskubidea egikaritzeko muga arruntak, hirugarrenari kalte eginez, orduan, kalte-ordain egokia eman beharra dakar, eta abusuak jarraitzea eragotziko duten administrazio-neurriak nahiz neurri judizialak hartu beharko dira".

Udalak esan du, Udaltzainen bitartez, Zirkulazio eta Garraio Sailarekin lankidetzan, iruzurraren gaineko kontrola indartu egingo duela eta arau-haustek fiskaltzari jakinaraziko dizkiola.

FEKOOR-EN INFORMATIKA IKASTAROAK ETA SORMENEZKO LANTEGIAK

Fekoor erakundeko nahi duten kide guztiek izan dezakete lekua Fekoor-ek ikasturte bakoitzean antolatzen dituen prestakuntza-ikastaroen eta sormenezko lantegien eskaintza zabalaren barruan, "Sancho Azpeitia" Jarduera Soziokulturaletarako Zentroan. Ikastaroak %33ko ahalmen-urritasun fisiko ala organiko aitortua, edo handiagoa, eta 18 eta 65 urte arteko adina dutenei zuzenduta daude. Urtez urte, 90 pertsona inguru aritzen dira zentroko ikasgeletan. Haien asmoa da lanpostu bat lortzeko beren aukerak hobetzea edo artearen bidez sormena lantzea, hori guztia, ingurune bateratzailean.

Informatika-ikastaroak

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriak (IKT) erabili ahal

izatea funtsezkoa da gaur egun enpresen langile-aukeraketan parte hartzeko eta lan-merkatuan gerora egoki moldatzeko. Bestetik, Internet eta posta elektronikoa bihurtu dira komunikazio-tresna nahiz informazioa eskura izateko bide. Aipatriko baliabideak, nolahi ere, oraindik ez daude herritar guztientzat erabilgarri –are gutxiago gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten taldeentzat–, berdintasunez erabili ahal ditzaten. Gure kolektiboari eragiten dion arrakala digitala murrizteko asmoz, Fekoor-ek informatika-ikastaroak eta teknologia berrietarako prestakuntza-ikastaroak antolatzen ditu. Gai hauek landuko dira: ordenagailuarekin ohitzea, oinarriko mantentze-lana; sistema eragileak eta softwarea; Word, Excel, Power Point, Access; Internet; PhotoShop; fitxategiak kopiatzea eta oinarriko segurtasuna PCn. Urrian hasiko dira ikastaroak eta ordutegi hau izango dute: **asteleheneretik ostegunera 9:00-11:00 eta 11:00-13:00**



(goizetan); 15:30-17:00 eta 17:00-18:30 (arratsaldeetan).

Sormenezko lantegiak

Fekoor-en sormenezko lantegiek beritasunak dituzte aurten. Eskulanei buruzko hainbat lantegi emango dira (zumitza, birziklapena, oihalak, buztina, larrua, girgileria, liburu-joskintza, etab.) eta horrek zehaztuko du ordutegi bakoitzean hautatutako pertsonen taldea. Ikastaroak **astelehenetik ostegunera** emango dira, **10:00-13:00** artean goizez eta **15:30-18:30** artean arratsaldez.

Lantegietan antolatutako jarduerak entrenamendua eta gaitasunen, iaioitasunen eta trebetasun psikosozialen eta erlazionalen garapena sustatzera bideratuta daude. Horrela, motibazioa indartu, autoestimua hobetu eta autonomia pertsonala sustatzen dituen sormenezko tresna gisa erabiltzen da artea. Aipatutako ikastaroak diziplina anitzeko lantalde batek ematen ditu: margolaritza-monitore batek, eskulantako batek eta saskigintzako beste batek.

Jarduera horien guztien azken helburua da gizarteko arlo guztietan integratzea eta barnean hartzea ahalmen-urritasun fisikoa eta/edo organikoa duten pertsonak.



“URETARA”

UR-KIROLLEN JAIA BILBOKO ITSASADARREAN

Joan den uztailaren 17an, piraguaz, belaontziz, traineruz eta pedaloz bete zen Bilboko itsasadarra, Fekoor-ek eta Bizkaiko Kirol Egokituaren Federazioak antolatutako ur-kirolen “Uretara” jaia zela-eta.

Bilboko ura modan dago eta arrakasta handia izan zuen deialdiak. Pertsona askok, deialdiari kasu eginez, Itsas Museoren kaian ontziratu eta kirol-jardunaldiaz gozatu zuten Ibaizabalen aisiarako berreskuratutako eremu natural berri horretan.

Kayakez, piraguaz, traineruz eta pedaloz osaturiko kolore askotako uholdeak ibaian gora egin zuen Euskalduna zubiraino. Aniztasun funtzionaleko pertsonen kolektiboari, familiakoei eta lagunei zuzenduriko lehenengo ur-kirolen jaia izan zen inguru horretan antolatutakoa. Edozein pertsonari guztiz irekia zegoen jarduera. Adin-mugarik eta bazterketarik gabe. Begiraleak eta gaitasun guztietara egokitutako ekipamenduak izan zituzten laguntza modura.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren eta BBKren babesaren jarduera hori bi txandatan antolatuta behar izan zen, parte-hartzaile kopuru handia zela-eta. Lehenengoan, uretan

izugarri gozatu zuten adin guztietako txoentzat izan zen protagonismoa, gehienentzat Itsasadarrean, eta horrelako ontzi batean, nabigatzen zuten lehenbiziko aldia baitzen. Ondoren irten ziren nagusiagoak ere ez ziren atzera begira geratu beraien txanda iritsitakoan. Ez zuten alferrik galdu gutxitan egiten duten kirol horrekin gozatzeko aukera.

Jai-giro ederra izan zen egun osoan, eta murgilaldiren bat edo bestez gain, ez zen inolako gorabeherarik izan. Politikaren eta kirolaren munduko hainbat pertsona ezagunek, hala nola, Iñigo Pombok, Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari orokorrak, eta Sabin Anuzitak, Bilboko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kirol zinegotziak lagundu ziguten Itsas Museoko ontzirekuan. Lehorrean jarraitu zuen hor jaiak, musikaz lagundurik, opariaren zozketarekin eta indarberritzeko hamaiketakoarekin.

Antolakuntzaren helburua oso-osorik bete zen: partaidetza handia izan zen eta, era berean, onarpen handia izan zuen kirol egokituak sustatzeko (batez ere uretako jarduerak) helburua zuen ekimen horrek, jai-egunaz gozatzeaz gain, noski.



FEKOOR AISIA

FEKOOR-EK ERDIALDEKO EUROPARA BIDAIA, ETA MURTZIARA ETA GIRONARA OPOR-ARNASALDIK ANTOLATZEN DITU

Oporren gure egitarauaren barruan, Europaren bihotzera bidaia proposatzen du aurten Fekoor-ek. Irailaren 11tik 18ra izango da eta Europako historiaren protagonista izan diren Budapest, Viena eta Praga "Hiri Inperialak" ezagutzeko aukera emango du. %33ko ahalmen-urritasun fisiko ala organiko aitortua, edo handiagoa, duten Fekoor-eko kideei, 18 eta 65 urte arteko adina dutenei, zuzendua dago. Aurreinskripzio-data uztailaren 29an amaitu zen.

Oporren egitarau horrek **Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza** dauka, zenbatekoaren (pertsonako 550 euro bakarrik) %60 laguntzen baitu diruz.

Bilbo-Budapest hegaldi zuzenaren bidez egingo da bidaia eta, horrez gain, lau izarreko hoteletan hartuko da ostatu, mantenu osoko erregimenean (2 gau Budapest, 2 gau Viena eta 3 gau Praga). Aurreikusitako txango eta ikustaldien artean daude: "Budapesteko panoramika", "Budapesteko parlamentua", "Goulash afaria", "Vienna panoramika", "Viena Klasikoa", "Pragako panoramika", "Praga Santua" eta "Malastrana".

Arnasaldiak

Gainera, 20 pertsonako talde batek atsedeen-egun batzuk gozatu zituzten uztailan Ejea de los Caballerosen (Zaragoza).

Aisiari dagokion gure eskaintza osatzeko, Fekoor-ek beste bi bidaia antolatu ditu irailerako. Lehena, Santiago de la Ribera (Murtzia) irailaren 1etik 11ra. Bestalde, urtero Cocemfe-k eskaintzen duen opor-egitarauaren barruan, aurten FEKOORI egokitu zaio Gironako BLANES herrira bidaia antolatzea, hilabete horren 3tik 11ra. Ahalmen-urritasun fisiko eta/edo organikoa duten eta FEKOOReko kide diren 40 pertsonentzat dago zuzendua bidaia. Egokitutako autobus batean egingo da Bilbotik abiatu eta Bilbon amaituko den bidaia. Hondartzatik 100 metrora eta herriaren erdigune turistikoan dagoen lau izarreko Blaumar Hotelean hartuko da ostatu, mantenu osoko erregimenean.



ZAINDUZ PROGRAMA

Berrito, Fekoorek **ZAINDUZ programa** jarriko du martxan, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten pertsonentzako programa, hain zuzen. Helburua gutxitasuna duten pertsonak zaintzeko eta haiei arreta emateko prozesu konplexu horretan laguntzea da.

26

JARDUERA	EGUNA	TXANDA
LEHEN LAGUNTZA 1	URRIAK 13	URTERO BEZALA, BI TXANDA IZANGO DIRA AUKERATZEKO GOIZEZ, 10:30ETATIK 12:30ETARA ARRATSALDEZ, 16:00ETATIK 18:00ETARA
LEHEN LAGUNTZA 2	URRIAK 20	
GUTXITASUNA DUTEN PERTSONEN GARBITASUNA	URRIAK 27	
JARRERA-HIGIENE 1	AZAROAK 3	
JARRERA HIGIENE 2	AZAROAK 10	
ERLAXAZIOA	AZAROAK 17	
JARDUERA ATSEGINAK ETA JARRAIBIDE OSASUNTSUAK	AZAROAK 24	
ARAZOEI AURRE EGIN	ABENDUAK 1	
SENTIMENDUEN ERABILERA	ABENDUAK 15	
FAMILIA BARRUKO GATAZKAK KONPONDUZ	ABENDUAK 22	

Jarduera horiek guztiak Fekooreko lokal berrietan egingo dira, Santutxuko Indalecio Prieto kaleko 16. zenbakian. Plaza-kopurua mugatua da. Jarduera horietakoren bat egiteko interesik baduzu edo zalantzaren bat argitu nahi baduzu, deitu 94.402.47.46 telefono-zenbakira 9:00etatik 14:00etara eta Macu Durán Psikologoaz galdetu.